



juneren
hegoak

Juneren Hegoak elkartearen egitekoa eta helburua: ahultasun egoeran dauden eta haur gaixoak dituzten Gipuzkoako familiei laguntza sare bat eskaintzea eta, ahal den heinean, haiekin elkarlanean aritzea gaixotasunari edota doluari aurre egin diezaioten.

05 JUNEREN HEGOAK Elkartearekin solasean:


Hegan egiteko ez da beti aski nahi izatea. Nahi izatea, izatekotan, baldintza bat da. Errazagoa da, nahi izateko, badezakezula sinistea. Eta badezakezula sinisteko, hegoak ikusi behar dituzu. Eta hegoak astintzeko indarra sentitu. Eta zenbat laguntzen duen hegalaldia hasi aurretik jakiteak erortzen bazara norbaitek jasoko zaituela. Eta ze ausardia ematen duen jauzi egiteko unean bizkarrean haize ufada goxoa sentitzeak.

Sendatzeko ere ez da aski nahi izatea. Dolu bat bizitzeko ere maiz ez da aski norbere indarra. Baterako zein besterako heldulekuak behar dira. Luma-jendea. Haize-ufada jendea. Haize-kirri jendea.

- Ospitalera bisitan lagunduko dizun jendea.
- Bidaiak eta lekualdaketak erraztuko dizkizuten lagunak.
- Zu gaixo dagoen pertsona bat zaintzen ari zaren bitartean maite dituzun beste pertsonak ere zainduko dituzten lagunak.
- Gaixotasuna edo dolua gizatasunez eta naturaltasunez bizitzen lagunduko dizun jendea.

Jende horrek osatzen du Juneren Hegoak elkarte. Hego-haize bero-jendea eta

ipar haize jende frexkoa da. Haize guztiak direlako onak behar diren unean, tximeletak hegaldia daitezten. Eta hego guztiek balio dutelako hegan egiteko, haizea alde denean.



**BETE EZAZU BIZITZA
TXIMELETAZ!!**

06 HEGAN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Miren Artetxe Sarasola

Ahotsak: Ines Osinaga Urizar eta Iñaki Etxezarraga Maiztegi "EtxE"

Txepetxak kabian txio
Lumak lituzke desio
Haziko balitzaizkio...
Begira
Hontza dator kabira
Lumak oparitu dizkio

Tximeleta alegera
Atera da jolasera
Miruaren bizkarrera
igo da
Eta badoaz gora
Iparrerantz hegan batera

Elkarri putz eginik
ta elkarri tirata
ezin dena
posible da ta
ez zaigu ez indarrik
ez gogorik falta.
Orain airean goaz
hegaka!

Bi hegoetan dardaraz
Han dago buztanikara
Ai... behera erortzen bada?
"Aurrera!"
Esan dio hegaberak
"Batzutan jaustea ona da!"

Elkarri putz eginik
ta elkarri tirata
ezin dena
posible da ta
ez zaigu ez indarrik
ez gogorik falta.
Orain airean goaz
Hegaka! (BIS)